

HILAK HIL

Behin bazen *Garrozen* mediku bat; ez gazte, ez zahar, bitarteche. Izenaz ez naiteke orhoit, aspaldi baitu haren hiltzeak. Garrozen bizi diren oraiko aitaso-amasoek berek engoitik ahantzia dukete.

Mediku bat zen jakitate handikoa, bere egitekoetan gain-gainetik argitua; eta halere bethi aitzina ikasten ari.

Edo zoin orduz haren mintzatzera zoazinek hatzemaiten zuten liburuz inguratua, eliza aldareko liburu handi hura iduri batzu aitzinean idekirik, lunetak soinean ari zela, ari han bethi, kurtu-makurtua, irakurtzen.

Etchetik atheratzen zenean ere bazaraman berekin bethi liburu bat besapean, bidean zoalarik irakurtzeko. Hitz dautzuet solas alfer guti egiten zuela! Norbeitek aldetik iragaitean *Agur* erraiten bazion, keinuz ihardesten zuen *Bai zuri ere*, doi-doia begiak liburutik altchatuz, burua aldaratu gabe. Ikusgarri zen haren liburutako karra.

*
* *
*

Bizkitartean etzuten Garroztarrek hura baithan hanbateko sinesterik. Hamar urthe baino gehiago bazituen, herrian bizi zela; eta ez denez bitchi!... Eri guziak hiltzerat uzten zituzten, mediku irakurtzale handi hura baino nahiagoz gabea.

Alabainan nondik nola zuketen hura baithan sinesterik? Bethi liburutan ari zela ikusiz, egiten zuten: «Deus ez bide daki gure medikuak. Adin hortaratua, eta oraino ikasten ari!... Gizagaichoa! Munduko liburu guziak aspaldi engoitik balazkike, hartze ona balu. Etsi beza ja; bardin ez du horrek medikuntza ehun urthez ere ikasiko».

Osoki gogoari emana zuten Garroztarrek, heien medikuak buru ahuala zuela. Hitz dautzuet, ez nuela nere gain hartu nahiko, heieri sinetsa-

raztea: bethi ikasten ari den medikua dela orotarik hoberena. Lehenago sinetsiko zuten... ez dakit zer!...

*
* *

Alta eririk ez duen medikua gizon hitsa da. Hura ala irinik gabeko okhina, biak bardin.

Bizi behar; jan behar, bizitzeko; eta gure medikuak bere irakutzte guzietarik ur hotzaren saria ez biltzen. Irautekotz, ardu zuen, liburuak bazterrerat utzirik, zerbeit egin. — Zer egin?

Egun batez, bere buruarekin gogoeta dagolarik, batbatean bururutzen zaio, egundaino nehork egin eztuena behar duela egin. — Huna zer:

Deitzen du etchera herriko-muthila eta igortzen du, auzapezaren baimenarekin, etchez etche; herri guziari jakinaraztera: «*Jaun medikuak ikasi dituela medikuntzazko liburu guziak; hain ongi ikasi non, hemendik harat aski baitaki, ez bakarrik erien sendatzeko (josteta bat izanen dela hori harentzat), bainan oraino hilen pizteko. Dio, nahi duela, bere indarraren erakusteko, hil bat piztu; edo zoin hil; nor ere izendaturen baitiote, eta hura; iguzkitara ala ilhargitara, nahi dutenean. Hil berri ala zahar; aspaldi ehortzia bardin, piztuko duela hanchet hilerrietan, herri guziaren aitzinean.*

*
* *

Berehala hedatu zen solasa batetik bertzera. Herriko muthilak bere itzuliaren erdia egin gabe bazakiten orok. Oro harrituak: zer behar othe zuten ikusi!...

Anhitzek etzuten uste, baizik ere burutik bazuela; eta egiazki urrikari zuten ziotelarik: «Gizagaichoa! Zerk hatzeman duen azkenean! « Horra zer den buru ahul bati jasan dezaken baino gehiago lan « emaita! Nahasi zaioke zuen pochia».

Bertze batzuk aldiz bazuten ikustera joaiteko gutizia; ez baitezpada nehork sineste osorik zuelakotz, bainan zerbeit bazitakelako nahikaria edo beldurkunda.

« Nork daki? zioten elgarri. Hainbertze urthez irakurtzen arizan « ondoan, zer laiteke, bertzei ez bezalako zerbeit sorginkeria gogoratu « balitzaio ere? Hilaren pizte hori handichkoa da, bainan nork daki?... « Eta ooren buruan, zer galtzen dugu, ikustera joanez, diote azkenean « orok elgarri. Goazin, ea zer eginen duen».

Hitz-hartzen dire: bilduko direla beraz handik ondoko igandean, eguerdik joitearekin, Garrozeko hilerrietara. Han ikus, zer gizon den gure jaun medikua. Hil bat pizten badu, eginen diote pesta eta ohore. Bainan Garroztarrez trufatzeko erabili balinbaditu hainbertze elhe,

hainbertze urhats alfer egin eta eginarazi, irri eta ziztu onik beharko du entzun, on bazaio...!

*
* *

Erran bezala, handik ondoko igande eguerditan badoa gure jauna hilerrietarat, zituen hoberenak jauntzirik: galtza beltchak, chinila beltcha, harneko churia, chapel hertsu luze bat; oinetakoak arauera; parasol gorri bat besapean, sudurrean ichtaklok luneta batzu, bertze orduz berri izanak.

Soinean zituenak oro ere histucheak zituen, chuhurra baitzen, orduan oro bezala.

Herriko haur guziak ondotik zarraizkon, guziak inguruan hari so, petik gora. Hilerrietan sartzearekin, oro elgarri gainka, erorarazter zuten gure Jauna. Lanik aski, hilerrien erdiko kurutzera ezin helduz! Han ziren ordukotz bilduak, kokahala tinki, herriko gizon eta emazte, gazte, zahar guziak; batzu goizetik jinak, ikusgarri hura hutsegín beldurrez.

Bainan cho!... Orai da.

Lau aldetarat inguruan so egiten du; gero thu, ez tul eta zintz, hein onean jartzeko.

Guziak hari beha, ichil eta gurbil. Hasten da:

« Jaun-andereak, badakizue zertarat ethorriak giren. Erran dautzuet hil bat piztuko dudala; hitzeko gizon izan nahi naiz. Orai berean hemenche chutiaraziko dut lurpetik bat, zuen aitzinean. Egon ichil eta geldi, begiak erne».

*
* *

« Lehenik nahi nuke jakin, ea nor behar dutan piztu. Niri bardin zaut Jakes ala Piarres; ala Beñat, ala Gachiucha. Zuek naki duzuenaren egitera nago. Mintza.....

« Piztuko duta *Chimun Ikazkina*, duela urthe bat eta zenbeit egun hila? Mintza, hots.....

« Barkatu, jauna, dio bazterretik *Dominika*, Chimun zenaren alar-guntsak. Ene senar gaichoa bethi ona izan da enetzat. Bizi naizeno ez tul ahantziren. Gaicho gizona! Orhoitzeak berak ni... nihi-hi, nihahi-ha,.... nigarra jauzarazten daut! Bainan, jauna, othoi etzazula pitz. Hilabete hunen ondarrean uztekoak ditut doluko arropak.

« — Eta gero?

« Gero, jauna, nahi naute ezkontarazi Piarres Handiarekin. Ni ez nintzen berrezkondu gogo; bainan engoitik hola da. Egun zortzi emaitekoak dituzte banak lehen eta azken aldikotz. Jauna, ezta egia bezalakorik: esposeko ikusgarri zenbeit ere baditut ja ukhanik.

« — Ori, Dominika, ongi egiten duzu erraitea. Ez basinazkit garbiki mintzatu, zure senar zenaren berehala piztera nindoan. — Ai, jauna, othoi, othoi!... — Cho, *Dominika*; chuka-zkitzu hortik zure nigarrak. Utziko dugu *Chimun*, hila hil. — Milesker, jauna.

« Hola denaz geroz, dugun hauta bertze norbeit. Zera? Gaizki ezpa-zautzue, *Katalin* okerra, iragan Ganderailu egunean ehortzia?

« — Ez, ez, ez, jauna; utz-azu *Katalin* den tokian; ez pitz *Katalin*. Jinkoak begira zitzaala, eni holako ianik egitetik, zion oihuka, bertze guzien gibeletik, *Jakes* konkorrak. Hamar urthe bizi izan gira elgarrekin: ederki purgatorio eginarazi daut harek eni hamar urthez. Dagola den tokian, bere eta ene onetan. Bazinaki, jauna, nik bezala, zer julufria zen hura!... Buru bat bazuen, buru bat, eiherako mandoak bezen gogorra. Thema bat! Eta mihi bat... sugearen eztena bezalako; nahasiko baitzituen Birjina Saindua eta San Josepe. Eztituz, ez oraino, guziak erraiten. Banuke behingo. Bainan elhe gutiz erran dezazudan, bego *Katalin* hor. Eztut nik *Katalinen* gutiziarik.»

« — Bizkitartean, gizon maitea, *Katalin* edo *Perkain*, gizon edo emazte, hunaz geroz, norbeit behar dautzuet piztu. Bertzalde, *Jakes*, zuk hemen egin baduzu *Katalinekin* purgatorio, badituzke, ba engoitik, *Katalinek* ere bi gogoeta eginik, bertze munduan. Ikusiko duzu, nolako emazte ichila, ezta, langilea, maitagarria dautzutan nik zuri berehala jalgiko hobi horren barnetik. Zaude orizu... — Othoi barka, jauna, elheaz jabetzen banitzauzu. Badakizu zer gertatzen den: emaztea hil, etchea berri. Ezta egia bezalakorik. *Katalinek* utzi dauzkit hiru haur, aho chilotik zintzurrari behera zerbeit daramatedanak. Nehondik neholere ez ginintazken emazte bat etchean gabe bizi. Alhargun egon nahia, ezinbertzez ezkondua naiz berriz. — Aski, *Jakes*; bainan zertako ez hastetik garbikiago mintza? Eztuzu zuk etchean bi emazteren beharrik. Batek ere debuen lanak emanen dauzkitzu, eztea hala, *Jakes*? — Ba jauna, ba.

« Beraz orduan pitz bagineza *Erlanje* zena? — Zer jauna? *Erlanje Oihanburukoa*? zion galdatu *Kadet Iratchetakoak*. — Ba, gizona, hura eta bera. — Gizagaicho! Gure osaba zen hura; ene aitabitchi. Balinbada gizon onik, gizon zuzenik, hura zen. Saindu bat. Bainan Jinkoaz othoi etzazula pitz. Hemen laiteken baino hobeki da den tokian. Mundu huntarat balethor berriz, berriz hil laiteke gu ikustearekin, bain itsutuki maite ginintuen ilobak, zertarateak giren; oro elgarrekin samur, gure etchalde pochia auzitan chahaturik. Bagira sei haurride, oro haurrez bethaek; ahal bezala bizi. Ez ginuke ororen artean otto gaichoaren haztekorik. Goseak eta egarriak berriz hil lezakete laster. Alta gizagaichoak eztu holakorik merezi. Jauna, etzazula pitz othoi!...

« — Hok dire jendeak! Guziek baduzue beraz zerbeit estakuru,

zoinek zuen hilak pizturik etcherat ez ereman nahiz. Zer mila sorgin? Ala uste duzue jostatzerat ethorria nitzauzuela ni hunat?

« — Jaun medikua, ez othoi kecha. Alabainan ikusten duzu gure heina. Badakizu nolako urtheak doazin gu bezalako jende beharrentzat. Saltzeko ginintuzkeen abereak eta azindak urririk behar ditugu eman. Mandoek ez dute joaiterik; ogiak deus ez du uzten. Nondik nahuzu, Jauna, ihardok dezagun? Hilak pizteko, gu behar gira hil.

« Pitz-azu aberatsago norbeit.

*
* *

« — Uzten dut beraz *Erlanje*. Bizkitartean ez bainaiz jina bakarrik zuen erasien aditzerat, errazu nor duzuen nahi pitz dezazuedan.

« — Jauna, pitz-azu *Etchechuriko Katica*, oiuhu egiten dio mutchurdirin batek. Adichkide minak ginen *Katica* zena eta ni. Emadazu hunat ena *Katica* maitea.

« — Ez, Jauna, bego hor geldirik bere onetan, dio bazterretik neskatxa gazte batek. Gaichoa!... Oren onean deithu zuen hura bere-ganat Jinkoak. Erranen dautzut, Jauna: *Katica* zenaren gizon-geia herritik urrun joana da ihesi,... eta ez bakarrik.

« Gaicho *Katica*! Hobe dun hik holakorik ez jakitea!....

*
* *

« Badakizue gero, Garroztarrak, kechatzen hasia nizela? Azkenean, ez badezaket egin zuen gogora, eginen dut nahi dutana, aditzen duzue? Elhe guti egizue niri, pitz dezadan *Chobadin Elizaldekoa*, iragan hilabetean hila bere mihia iretsirik, ustez eta charbo bat iresten zuen.

« — Hitz bat, jauna, barkamendurekin: ez nuke nahi nik *Chobadin* zena pitz dezazun, zion ihardetsi *Patin Bidegainekoak*. Ezen, jauna, *Chobadinek* bere etchea eta mahastia salduak zauzkidan, hil arteo nik haztekotan. Hitz dautzut ongi pagatuak ditudala. Hameka urthe luzez hanche hazi dut *Chobadin*, segurki eta halere deusen eskasik gabe... Ni bas orai berriz haren ahora pazkatzen!.... Ikusten duzu, jauna, herri guziaren irringarri nindakeela.

« — Hala da. Ez lakikezu laket, ikustea *Chobadin* pizturik berriz janedanei lotzen.

« Bainan garbiki, eztakit gehiago, norat itzul... Ea goazin ikus, hancheko lur meta ttipiño haren pean nor othe den ehortzia? Daukat haurño bat dela, duela urthea bila. Beldur naiz egiazki bekatu egin, hura piztuz. Gaicho aingerua! Zeruaren erdian da. Hobe du ban egoitea berriz hunat jinik hemen bizitzea baino, nik entzuten ditudahen entzuteko.....!

« Bizkitartean, zuek hala nahi baduzue, piztuko dut bardin.

« — Jaun medikua, zion orduan erran atcho chahar batek nigarrez, gurea zen, haur hori. Horren amacho naiz ni. Hil zenean, etzion oraino bulharra kendua nere alabak. Lehen hortzak doi-doi hasiak zituen chilhatzen. Gaicho maitea! Ikusi bazinu nolako haur ederra zen! Jainkoak hartu dauku: egin bedi haren nahi saindua!...

« Jauna, bertze haurño bat badugu orai bulharrean. Jainkoak badaki zer ari den: esku batez kentzen duena bertzeaz emaiten du. Ez beraz othoi pitz haur hil hori. Nehondik ez lituzke amak biga betan bere esnetik hazten ahal; eta ez gira gu aski aberatsak, bietarik bat amatan ezartzeko.

*
* *

Baiki!... Medikua han dago, bi besoak kurutzaturik, lurrari so, gogetatua.....

Bere baithan, erdi ahapeka, asko elhe baderasa: «Hauche da lastima! Ez denez burua galgarri! Othe da munduan Garroztarrak bezalako jenderik?... Bizkitartean cho, cho ichilik othoi. Huna zer heldu zautan gogora. Oraikotik badut. Huntaz bederen ez ahal duzue nehork deus erraitekorik ukhanen».

Harrituak daude oro, lephoa luzaturik, medikuari so: nor othe duen?

« — Nahi duzue nik erran, nor behar dugun piztu, deus bertze ondoriotasunik utzi eztuena, bere etsemplu ederren orhoitzapena baizik, eta zenbeit sos bakar, herriko jende beharrentzat? Hura da zuen erretor zena; hanbat maite zintuzten erretora. Nigar chorta onik ichuri ginuen orok, hura galdu ginuenean.

« Hura behar dugu piztu. Zer diozue hortaz? Oraikotik bagirea ala ez?

« — Ez, jauna, diote ihardesten handik eta hemendik zazpi edo zortzi beatak, orok betan, elgarrekin hitzhartuak izan balire bezala: «Ez jauna; ez othoi.

« — Zer?!

« — Jauna, dio *Arrochali*, kongregazioneko presidentak, ongi anhitz egin du bere demboran gure erretor zenak. Bainan azkenerat, ezindua zen, gaicho apeheza.

« Pekada bezen elkor: kofesioan mintzatzen bazitzaion artho, ihardesten zuen ogi. Oihuka baizik etzitzaiokeen deus adi-araz. Badakizu, jauna, choko hartan oihuka mintzatu behar izaitea ezta laket.

« Bego beraz, Jainkoak bere lorian duela; ongi merezitua du!...

« Eta gero, jauna, badugu erretor berri bat hauta; pastiza bezen gozoa; organoak bezala kantatzen, eta predikatzen... nola?! Choragarri da haren aditzea. Orok maite dugu. Deusetan ez ginuke nahi orai hori galdu, ez trukatu. Beraz, jauna...

« — Aski, aski, andere *Arrochali*. Baduzu aski erranik. Eta nik badut egungotzat ja soberache aditurik.

« Goazin etcherat. Eztuzuenaz geroz nahi, egun hemen pitz dezazuedan zuen hiletarik bat, bertze aldi batez hobeki elgar adi dezakegu. Bethi nik nere ahalak eginen ditut, ez banauzue ere hilen pizterat utzi nahi, bederen biziak hiltzetik begiratzeko.

« Iguzkia apalduchea da. Gosetuak zarete engoitik. Egizue afal eta lo. Ondoko egunak arte.»

*
* *

Atsegin hartu zuten Garroztarrek, azken hitz hoik aditzearekin! Haurrak eta oro han zauden, ichil eta gurbil.

Medikuak itzulian orori agur bat egin zioten; eta joan zen etcherat, ororen aitzinean, parasol gorria besapean, urhatsa pichkor eta burua gorarik.

Sinesten ahal duzue, irri eta trufa guti ukan zuela ondotik.

Orduz geroztik, mirakulu handiak egin zituen mediku harek Garrozen eta handik zazpi herri inguruetan.

Etzituen eiki hilak pizten,... ez baitzuten utzi. Bainan zenbati etzioten bizia begiratu? Sineste osoa zuten hura baithan, Amikuztar guziek. *Alabainan etzena bethi liburutan ari?* Orok zaukaten, Frantzian ez Espainian etzela bertze bat, hura bezalakorik.

H. U.

